



NAZIOARTEKO MERKATARITZAREN ERAGINA
NAZIOARTEKO ZUZENBIDE PUBLIKOAN

2019-2020

Zuzenbide Gradua

Egilea: Markel Samaniego de Juan
Zuzendaria: Iñigo Iruretagoiena Agirrezabalaga

AURKIBIDEA

I. SARRERA	1
II. NAZIOARTEKO MERKATARITZAREN ETA NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAREN EGOERA GARAIKIDEA	2
1. <i>Merkataritza eta zuzenbidearen egituraketa</i>	2
A) Nazioarteko ekonomiaren egitura juridiko-instituzionala.....	2
i. Munduko Merkataritza Erakundea	3
ii. Nazioarteko Diru Funtza.....	5
iii. Munduko Bankua	8
B) Nazioarteko zuzenbide publikoa eta nazioarteko merkataritza zuzenbidea	8
i. MMEko akordioak	9
ii. Merkataritza askeko akordioak	10
iii. Nazio Batuen Erakundeko Nazioarteko Merkataritza Zuzenbideko Batzordeak	11
2. <i>Nazioarteko merkataritza eta zuzenbidearen bilakaera historikoa</i>	12
III. NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAREN ETA MERKATARITZAREN ANALISIA MARX ETA CARL SCHMITT-EN TEORIE-TATIK	17
1. <i>Azterketarako metodoa</i>	17
2. <i>Nazioarteko merkataritzaren barne-arkitektura eta dinamikaren logika</i>	18
3. <i>Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren dinamika</i>	24
A) Espazioaren ordenamendua	24
B) Gerra eta bakearen ordenamendua.....	25
4. <i>Nazioarteko merkataritza eta nazioarteko zuzenbidearen lotura organikoaz</i>	27
A) Espazioa lokarri ekonomiko-juridiko bezala.....	27
B) Langileriaren gerra kontzeptuaren eragina Nazioarteko Zuzenbide Publiko modernoan	28
C) Nazioarteko merkataritzaren eta nazioarteko zuzenbidearen logika amankomunaz	29
IV. ONDORIOAK	30
V. BIBLIOGRAFIA	33

LABURDURAK

BGNB.....	Berreraikuntza eta Garapenerako Nazioarteko Bankua
BPG.....	Barne Produktu Gordina
CECA.....	Altzairu eta Ikatzen Europar Komunitatea
GATS.....	Zerbitzuen Merkataritzarako Akordio Orokorra
GATT.....	Merkataritza eta Aduanetako Muga-zergen gaineko Akordio Orokorra
GNE.....	Garapenerako Nazioarteko Elkarte
IBEA.....	Inbertsioen Bermerako Erakunde Aldeaniztunarekin
IEKN.....	Inbertsioen material ematen diren gatazken Konponbiderako Nazioarteko Zentroa
MAA/TLC.....	Merkataritza Askeko Akordioak
MB.....	Munduko Bankua
MME.....	Munduko Merkataritza Erakundea
NATO.....	Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea
NBE.....	Nazio Batuen Erakundea
NBENMZB.....	Nazio Batuen Erakundeko Nazioarteko Merkataritza Zuzenbideko Batzordeak
NDF.....	Nazioarteko Diru Funtza
NFK.....	Nazioarteko Finantza Korporazioa
OECD.....	Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
OECE.....	Elkarlan Ekonomikorako Erakunde Europarra

I. SARRERA

Merkataritza eta zuzenbidearen arteko loturek zeresan handia eman dute gizakiaren historian zehar. Modernitateak, noski, ez dio inperatibo horri muzin egiten. Haratago, hipotesi horren baieztapena besterik ez du frogatzen; izan ere, begiratu bat botatzea besterik ez dago mundu mailako testuinguru geopolitikora ekonomiaren eta zuzenbide-egituren arteko lotura edota, bestela esanda, batasuna existitzen dela ondorioztatzeko. Bada, sozialismo ekonomizistaren ordezkariak zein liberalismo klasikoaren ideologoen erlazio juridiko-politikoen pisua ukatzen duten arren, edukien eta formen arteko harreman dialektikoan kokatu beharko genuke eztabaida ene aburuz¹; baina horri beranduago helduko diogu.

Esan beharra dago, lehenik eta behin, zaila dela balizko baieztapenak burutzea mundu mailako eskala geografikoan burutzen diren politika ekonomikoen zein operazio juridikoen inguruan. Halako maniobrek intelijentzia internazional baten jarduerak eskemei erantzuten dieten heinean, gure posizio lokaletatik zaila suertatu ohi da berauen azterketa egoki baten gauzapena.

Zientzia ekonomikoa eta zientzia juridikoak, beraz, lan-hipotesi batzuei erantzun beharko lieke lehenik. Alegia, bien arteko harremanaren kohesio graduaren fundamentuak lokalizatzearen lehen pausua hipotesiak ekoiztea da eta horri erantzuten dio sarrera labur honek. Hipotesiak indukzio-teknikak gordetzen ditu baliabide analitiko bezala. Tesiak edo baieztapenak, aldiz, zientzia inplikatzeko du azterketarako metodo moduan.

Nire asmoa, beraz, nazioartean egun funtzionatzen duten egitura juridiko-instituzionalen eta nazioarteko merkataritzaren artean aurkitzen den elkarrekikotasun-harremana azalertzeko elementu batzuk aportatzea izango da; alegia, zein modutan erantzuten dion Bigarren Mundu Gerratik aurrera Ameriketako Estatu Batuek sustaturiko Nazioarteko Zuzenbide Publikoak beronen interes ekonomikoen errealizazioari. Hipotesi hori ilustratzera begira, sarrera gisara egungo mundu mailako erakunde juridiko esanguratsuenen jarduteko modua deskribatuko dut azalpen orokor batekin. Ondoren, momentu honetara nola iritsi garen ondorioztatzeko nazioarteko merkataritzaren eta

¹ E. Dussel Ambrosini, *Política de la liberación vol. II Arquitectónica*, Madrid, 2009, p. 39-40.

zuzenbide publikoaren genesi historikoari zertzelada batzuk emango dizkiot. Bukatzeko, egitura hauen logika operatiboaren oinarrian proiektatzen saiatuko naiz Carl Schmitt legelariaren eta Karl Marx ekonomialariaren tesietan oinarrituta. Horrela, aipaturiko hipotesiari forma ematen saiatuko naiz.

Alabaina, esan gabe doa informazio iturrien kantitatea areagotu egin dela azken urteotan teknologia berrien sozializazioaren bitartez, eta horrek, gai honetan bederen, aurretiaz lortu ezin genituen datu eta estatistika multzoak ahalbidetzen dizkigula. Horrela, hipotesitik tesira hurbiltzerako saiakeran aurrerapauso trinkoak burutzeko aukerak irekitzen dira.

II. NAZIOARTEKO MERKATARITZAREN ETA NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAREN EGOERA GARAIKIDEA

1. Merkataritza eta zuzenbidearen egituraketa

A) Nazioarteko ekonomiaren egitura juridiko-instituzionala

Nazioarteko merkataritzaren egoera garaikideari erreparatuz, aipatu beharra dago merkataritza askearen eredua dela mundu-mailan nagusi dena; alegia, *laissez faire* delakoa. Modalitate hau da, keynesismoaz gain, historikoki funtzionatu duen merkatu mota.

Esan daiteke, Ongizate Estatua ahalbidetu duten teoria keynesianistetatik haratago, merkataritza askearen aldeko teorialari liberalistek eta gaurko neoliberallek zehazten dituztela nazioarteko merkataritzak jarraitu beharreko pautak.

Teorialarien artean aurkitu daitezke ekonomia politiko klasikoaren eskolako Adam Smith edota David Ricardo². Baina atzera begirako proiektzioak ez ditu muga horiek ukitu behar ezinbestean; izan ere, XX. mendean zehar egituratu ziren Austriako Eskolak zein Chicagoko eskolek izan badituzte haien espresio modernoak³. Bada, Munduko

² I. Rubin, *Historia del pensamiento económico*, Madrid, 2011, p. 47

³ *Ibid.*, pp. 47-60

Merkataritza Erakundea, Nazioarteko Diru Funtza edota Munduko Bankua ez dira kontraesanean sartzen inondik inora Von Hayek zein Milton Friedmanen hipotesiekin.

Irizpide teoriko hauen gauzapean praktikoak eraentzen dituzte nazioarteko merkataritza harremanen nondik norakoak.

Hari horretatik tiraka, beharrezkoa da nazioarteko merkatuaren eta, gehienbat, beronen erakunde arautzaileen gaineko ebaluazio bat burutzea. Nagusienak honako hauek dira: Munduko Merkataritza Erakundea (aurrerantzean MME), Nazioarteko Diru Funtza (aurrerantzean NDF) eta Munduko Bankua (aurrerantzean MB).

i. Munduko Merkataritza Erakundea

Munduko Merkataritza Erakundeak 1995eko urtarrilaren 1ean hartu zuen forma eta ordutik nazioartean merkataritza-harremanak kudeatu dituen organismo nagusia dela esan daiteke. Izatez, 1930 eta 1940. hamarkadetan Ameriketako Estatu Batuetako presidente zen Roosevelt-ek teorizatu eta proposatu bazuen ere, proiektuak ezin izan zuen garai hartan gorpuztu; izan ere, garaiko kongresisten zein enpresarien irizpideek “errealismo falta” egotzi zioten presidentearen prisma geopolitikoari⁴. Bada, proiektuak “mundu mailako gobernu” baten anbizio politikoari erantzuten zion eta, esan bezala, idealismoaren bekatua laztantzen ei zuen AEB-etako sektore boteretsuenen ustetan⁵. Honen islarik esanguratsuen 1947an Nazio Batuek La Habanan merkataritza eta enpleguari buruz aurrera eramandako konferentzian aurkitzen da, zeinetan MME eratzeko proposamena egiten den⁶. Beraz, mende amaieran kristalizatu zen erakunde hau, eta batzuen iritziz, XX. mendeko bigarren erdialdeko erreforma ekonomiko garrantzitsuen 7. da⁷.

⁴ G. Arrighi, *El largo siglo XX*, Madrid, 1999, pp. 77-95

⁵ *Ibid.*, pp. 77-95

⁶ Naciones Unidas, “Acta Final y documentos conexos, E/Conf.278”, Conferencia de las Naciones Unidas sobre Comercio y empleo. La Habana, Cuba, Naciones Unidas, celebrada del 2 de noviembre de 1947 al 24 de marzo de 1948, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/docs_s/legal_s/havana_s.pdf (kontsulta eguna: 2019ko azaroaren 25a).

⁷ Organización Mundial del Comercio: *Organización Mundial del Comercio*, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/thewto_s/whatis_s/tif_s/fact4_s.htm (kontsulta eguna: 2019ko azaroaren 25a).

Era berean, MME-ren jarduera ekonomikoa ulertzeko, funtsezkoa da GATT akordioak ulertzea, akordioa hauetan aurkitzen baita MEEaren ernamuina⁸. GATT-ek ingelesez Merkataritza eta Aduanetako Muga-zergen gaineko Akordio Orokorrari egiten dio erreferentzia. Akordio honetan progresiboki gero eta herrialde gehiagok hartu zuten parte, beronen funtzioa, izenak aditzera ematen duen moduan, merkataritzaren erregulazio aldeaniztuna eta liberalizazioa bultzatzea izan zirelarik⁹.

Hala eta guztiz ere, GATT akordioak hauspotzen zuen liberalizazioak oinarritzko printzipio batzuk egin behar zituen bere ezinbestean; hala nola: 1) Nazio mesedetuenaren printzipioa; 2) Tratu nazionalaren printzipioa; 3) Konpromisoen kontsolidaziorako printzipioa; 4) Gardentasunaren printzipioa. Horrela, printzipio hauek zeharkaturiko politika ekonomikoaren baitan garatu zen GATT akordioa¹⁰, eta hontara, gradualki baldin bada ere bada ere, gero eta herrialde gehiago joan ziren batzen GATT-ek burutzen zituen “errondetan”. Joera honen adierazle da Ginebrako Errondan 23 herrialdek parte hartu izana eta zortzigarren eta azken errondan, Uruguakoan, 123raino igo izana herrialdeen kopurua¹¹.

Erronda hauetan, muga zergetatik haratago, anti-dumping neurrien inguruan, marko juridikoei dagokien egokitzapenen gainean, nekazaritza edota jabetza intelektualaren gainean hartzen ziren erabakiak¹². Beraz, testu juridiko ugari aurki daitezke erronda hauetan harturiko erabaki-multzoetan¹³.

Ildo horretan, zortzigarren itzuliaren baitan eratu zen, formalki oraingoan, Munduko Merkataritza Erakundea. Gorago aipaturiko funtzioak betetzen ditu bai eta GATTen baitako printzipio arautzaileak barnebildu bere funtzionamenduan, 1995eko urtarrilaren 1etik. Esan beharra dago 164 herrialdek hartzen dutela parte nazioarteko erakunde honetan eta lanaren banaketa sistematizatu bat ematen dela bere baitan, eskuduntza ezberdinak dituzten organoak aurki daitezkeelarik¹⁴.

⁸ J.C. Fernández Rozas, *Sistema de Derecho Económico Internacional*, Pamplona, 2010, pp. 71-77

⁹ *Ibid.*, p.77

¹⁰ *Ibid.*, pp. 86-93

¹¹ J.C. Fernández Rozas, *Sistema de Derecho Económico Internacional*, Pamplona, 2010, pp. 71-77

¹² *Ibid.*

¹³ Organización Mundial del Comercio: *Textos jurídicos anteriores al establecimiento de la OMC*, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/docs_s/legal_s/prewto_legal_s.htm (kontsulta eguna:2019ko azaroaren 26a).

¹⁴ M.Díez de Velasco, *Las Organizaciones Internacionales*, Madrid, 2008, pp. 457-476

MMEk merkataritza arautzen duen momentutik, materia horretan gauzatzen diren akordioen aplikazioak errebisatzen ditu, gara daitezkeen gatazkak eta balizko talkak bideratzen ditu, bai eta garapen bidean aurkitzen diren herrialdeen merkataritza gaitasunak garatu¹⁵.

Araudi komertzialak ekoizteko gaitasuna Ministroen Konferentzia deritzon organoak dauka, zeinetan 164 herrialdeetako Kanpo Harremanetako Ministroak elkartzen diren. Euren da botere araugilea. Herrialde parte-hartzaileek organo honek ekoiztiriko legedia aplikatzeko betebeharra daukate. Legediaren produkzioa, era berean, merkataritza askearen printzipioen baitan burutzen da, eta horren erakusle dira MMEren lan-lerroak: besteak beste, diskriminazio-eza herrialde batean zein bestean merkaturatzen diren salgaien jatorriari dagokionean, irekiagoa izatea eta oztopo komertzialei atea ixtea, edo lehiakorra izatea¹⁶. Alegia, MMEk sustatzen duena, ekonomiaren liberalizazioa da, honek enpleguaren kalitateari eta sorrerari, hiritargoaren bizitzari, herrialdeen garapenari, ahulenen ahotsa entzuteari, bakearen egonkortzeari edota ingurumenaren eta osasunaren ongizateari erantzungo dielakoan¹⁷ eta bizikidetzarako bulkada esanguratsu bat inplikatuko duelakoan.

ii. Nazioarteko Diru Funtsa

Nazioarteko Diru Funtzarekin jarraituz, beronen genesi historiko eta politikoan sakontzea funtsezkoa suertatzen da egungo paradigma ulertu ahal izateko.

NDF-ren ideia 1944. urtean Bretton Woods-eko Akordioetan mahai-gaineratu zen, Ameriketako Estatu Batuetan (AEB aurrerantzean). Bertan, 1929ko Gainbehera Handia eragin zuten elementu ekonomikoak berriro ez errepikatzeko nazioarteko kooperazio ekonomikorako marko bat eratzea adostu zuten 44 herrialdek. Bada, adosturiko agenda

¹⁵ J.C. Fernández Rozas, *Sistema de Derecho Económico Internacional*, Pamplona, 2010, pp. 77-80

¹⁶ Organización Mundial del Comercio: *Lo que propugnamos*, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/thewto_s/whatis_s/what_stand_for_s.htm (kontsulta eguna 2019ko azaroaren 28a).

¹⁷ Organización Mundial del Comercio: *Diez cosas que puede hacer la OMC*, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/thewto_s/whatis_s/10thi_s/10thi00_s.htm (kontsulta eguna: 2019ko azaroaren 28a).

horren bueltan aurkitzen da NDF sortzearen ideia, beronen funtzio nagusia nazioarteko merkataritzaren oreka bermatzea izanen zelarik¹⁸.

Funtzio hori bere osotasunean gauzatzeko NDF-k eskumen berezi batzuk ditu. Eskuduntza nagusia Ikuskaritzarena da. Erakunde honek nazioarteko merkatuaren armonia mantendu eta krisialdiak ekiditeko erabiltzen du lanabes hau ekonomia nazional zein nazioartekoaren gainean. Horrela, herrialde horien garapen ekonomikorako aholkularitza lanak burutzen ditu, baita maileguak ahalbidetu ere gainbehera edo joera berantiarretako garaiei aurre egin asmoz¹⁹.

Esan beharra dago, gaur egun, NDF-ren laguntza jaso duten herrialde batzuk egon badaudela eta Europari dagokionean, Grezia zein Ukraina bezalako herrialdeak aurkitzen direla herrialde mailegu-hartzaileen artean²⁰.

NDF Zuzendaritza Gerente eta Exekutiboek zuzentzen dute. 2011ra arte zuzendaritzaren osaera erabakitzerakoan, kontutan hartu beharreko elementurik esanguratsuen herrialde bakoitzaren kuotak ziren eta horrela da oraindik ere. Honek jarraitzen du erabakiak hartzeko eskubidea baldintzatzen duen magnitudea izaten. Hau da, orduan eta ahalmen ekonomiko sendoagoa izan, kuota handiagoekin ekarpena egiteko gaitasuna eta beraz, bozkatzeko botere gehiago. Izan ere, NDFn hartzen diren erabakiek gehiengo kualifikatu bat galdegiten dute kasuan kasu (batzuetan %70ekoa eta besteetan %85ekoa). Zentzu horretan, AEB izan dira parte-hartze ahalmen gehien izan dutenak orain arte NDFren zuzendaritzan, betorako ahalmena ere garatu dutelarik %16,74-eko esku-hartzearekin²¹. Ez da kasualitatea, beraz, gaur egunera arte NDF-ren politika ekonomikoa AEBn ildo ekonomikoarekin koherentzian egituratu izana²². Hala eta guztiz ere, erakundeko organo eskudun nagusienak, Gobernu Kontseiluak alegia, pisu nabarmena hartu du 2011. urtetik zuzendaritzak erabakitzeari dagokionean. Honek berrikuntza bat suposatzen du, kontseilu honetan NDF-n parte hartzen duten 189 herrialdeak baitaude ordezkaturik, horietako bakoitzak bere interes ekonomiko partikularrak babesten dituelarik Kanpo Ministroa bezalako figuren bitartez.

¹⁸ Y. Varoufakis, *El Minotauro Global. Estados Unidos, Europa y el futuro de la economía mundial*, Madrid, 2013, pp. 91-94.

¹⁹ M. Díez de Velasco, *Las Organizaciones Internacionales*, Madrid, 2008, p. 419.

²⁰ *Ibid.*, pp. 419-420.

²¹ Comunidad Forex de España y América Latina: *Fondo Monetario Internacional (FMI)*, eskuragarri hemen: <https://efxto.com/diccionario/fondo-monetario-internacional-fmi> (kontsulta eguna: 2019ko azaroaren 30a).

²² J.C. Fernández Rozas, *Sistema de Derecho Económico Internacional*, Pamplona, 2010, pp. 333-341

Horretaz gain, NDF-ren funtzionatzeko modua konprenitu ahal izateko, gorago adierazi bezala, *Breton Woods-eko akordio*en izpiritua ulertzea garrantzitsua da. Akordio honek Estatu Batuak bereziki eta nazioarteko ekonomia orohar astindu zituen krisialdi ekonomikoari eta honek eragindako bi mundu gerrei erantzuteko nazioarteko ekonomiaren berrantolaketari erantzuten dio modu argian. Izan ere, batez ere Bigarren Mundu Gerran suntsituriko giza kapital eta kapital material guztiak AEBen hartzekodun izaera kristalizatzeko baldintzak sortu zituen heinean, herrialde honek merkantziak zein kreditua esportatu zitzakeen Europara. Honek 1950 eta 1970 urte bitarteetan iparramerikarren superavit-a errealitate bilakaturiko posibilitate bezala antzaldatu zen, Estatu Batuen hegemonia ekonomikoa materializatuz²³. NDF proiektu ekonomiko horren baitan ulertu beharra dago, bai eta ondoren sortuko den Europar Batasuna alemaniar hegemoniarekin²⁴.

Marshall Plana, noski, ekuazio honen baitan garatu zen. Haratago joanda, “Marshall Plana zen plan globalaren giltzarria” Varoufakis-en iritziz eta helburu nabarmena zuen: “etorkizunean eman zitekeen 1929koa bezalako krisitik salbatzea kapitalismo globala”²⁵. Aipaturiko AEBn laguntzak Europaren berregituratzeari dagokionez kredituen forma hartu zuen 14 milioiko mailegua esleitu zielarik hartzekodunak zordunari. Modu horretan garatu zen Europaren dependentzia AEBekiko²⁶. Izan ere, iparramerikar eta europar merkantzien eskaria bermatua izan zen, Estatu eredu keynesiarraren edo Ongizate Estatuaren eraikuntzan sakondu zelarik²⁷.

Autore berberak zentzu berean iradokitzen du Europar Batasuna ere Bretton Woods-eko filosofiaren baitan ulertu behar dela; ezin baitira kontzebitu 1948an gorpuztu zen Elkarlan Ekonomikorako Erakunde Europarra (OECE) eta honen testigua hartu zuen OCDEa inizatiba isolatu gisara. Baita Altzairu eta Ikatzaren Europar Komunitatea (CECA) bera ere. Varoufakis-en hitzetan: “europar integrazioa errealitatean diplomazia amerikarraren goi geruzen ideia gogoangarria izan zen”²⁸.

²³ Y. Varoufakis, *El Minotauro Global. Estados Unidos, Europa y el futuro de la economía mundial*, Madrid, 2013, pp. 89-91.

²⁴ *Ibid.*, pp. 91-94.

²⁵ *Ibid.*, pp. 106-110.

²⁶ *Ibid.*

²⁷ J. Fontana, *Por el bien del Imperio, una historia del mundo desde 1945*, Barcelona, 2018, pp. 31 y ss.

²⁸ Y. Varoufakis, *El Minotauro Global. Estados Unidos, Europa y el futuro de la economía mundial*, Madrid, 2013, pp. 110-115.

iii. Munduko Bankua

Honetaz guztiaz gain, esangura handiko beste proiektu batzuk ere garatu ziren Bretton Woods-en. Horien artean, eta garrantzia maila handiarekin, Munduko Bankuaren proiektua sortu zuten²⁹. MBren xede orokorra gerrak kolpaturiko herrialdeetara inbertsio produktiboak bideratzea izanen litzateke³⁰ eta hasieran Berreraikuntza eta Garapenerako Nazioarteko Bankuaren (BGNB) izena hartu bazuen ere, beronek Garapenerako Nazioarteko Elkartearekin (GNE), Nazioarteko Finantza Korporazioarekin (NFK), Inbertsioen Bermerako Erakunde Aldeaniztunarekin (IBEA) eta Inbertsioen materialien ematen diren gatazken Konponbiderako Nazioarteko Zentroarekin (IEKN) garaturiko aliantzaren bitartez, MB egituratu zen³¹.

Horrela, MBren funtzionamendua ez da asko ezberdintzen NDFren funtzionamendu eredutik. Biek lanaren banaketa modu oso antzekoan dute antolaturik. Gobernu Kontseilua da eskuduntza handieneko organoa, zeina urtean behin elkartzen den eta non MBren parte diren 189 herrialdeetako Finantza edo Garapen Ministroek hartzen duten parte. Hala eta guztiz ere, periodikotasun handiagoarekin lan egiten duten 25 Zuzendari Exekutibori delegatzen zaizkie zenbait kompetentzia, orobat exekutiboak direnak. Hauen konposizioa, NDFren ildo beretik, akzionista nagusienen pribilegioaren arabera izanen da; alegia, MBn akzio gehien dituzten herrialdeek –Frantzia, Japonia, Alemania, Britainia Handia eta AEB- zuzendari bana hautatzeko eskubidea dute. Era berean, Errusia, Txina eta Arabia Saudik ere euren zuzendari exekutiboa aukeratzen dute. Gainerako zuzendari exekutiboak bozka bitartez aukeratzen dira.

B) Nazioarteko zuzenbide publikoa eta nazioarteko merkataritza zuzenbidea

²⁹ J.C. Fernández Rozas, *Sistema de Derecho Económico Internacional*, Pamplona, 2010, pp. 414-418

³⁰ Y. Varoufakis, *El Minotauro Global. Estados Unidos, Europa y el futuro de la economía mundial*, Madrid, 2013, pp. 106-110.

³¹ J.C. Fernández Rozas, *Sistema de Derecho Económico Internacional*, Pamplona, 2010, pp. 414-418.

Nazioarteko Merkataritza Zuzenbidea Estatu batetako lurralde eremutik haratago garatzen diren merkataritza harremanak arautzen dituen zuzenbidearen alorrari deritza³². Gainera, gorputz juridiko uniforme bat egituratzera begira egungo nazioarteko merkataritza arauen nondik norakoak azaltzen saiatzen den zuzenbidearen adarra dela esan genezake.

Egun nazioarteko merkatuaren zabalpena dela medio, beronekiko paraleloan hazi da Nazioarteko Merkataritza Zuzenbidea eta forma ezberdinak hartu izan ditu.

i. MMEko akordioak

Lehenengo, merkataritza akordio erregionaletara aplikatzen diren MMEren arauak erreparatu behar zaie. Gorago adierazi moduan, MMEaren printzipio errektoreen artean nazio mesedetuenearen printzipioa dago, zeina partikulari GATT-eko I artikuluan artikuluan arautzen den. Bada, printzipio honek duen pisua arindu egin daiteke MMEra atxikituriko Estatu-kide batek merkataritza akordio erregionalak burutzen dituen eta hori gerta ez dadin hain zuzen ere, MMEk hitzarmen horiek burutzeko baldintzak ezartzen ditu arau batzuen bitartez³³; izan ere, hala izango ez balitz, aipaturiko printzipioa albo batera geratuko litzateke.

Arau horien artean azpimarra daitezke batez ere: GATTeke XXIV artikuluko 4tik 10era bitarteko parrafoak, Habilitazio Klausula deritzona edota Zerbitzuen Merkataritzarako Akordio Orokorreko (GATS aurrerantzean) V artikulua.

GATTeke XXIV artikuluko 4tik 10erako akordioei dagokienean, mugetako salgaien trafikoari, aduana batasun eta merkataritza askeko eremuen funtzionamendu eta kokapenari egiten zaie erreferentzia, horiek erregulatzeko neurriak formulatzen direlarik³⁴.

³² J., Barrera Graf, *Derecho Mercantil Internacional* (D.M.I.), eskuragarri hemen: <https://archivos.juridicas.unam.mx/www/bjv/libros/5/2105/3.pdf> (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 4a).

³³ Organización Mundial del Comercio: *Las normas de la OMC*, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/tratop_s/region_s/regrul_s.htm (kontsulta eguna 2019ko azaroaren 28a).

³⁴ Organización Mundial del Comercio: *Las normas básicas sobre mercancías*, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/tratop_s/region_s/regatt_s.htm (kontsulta eguna 2019ko azaroaren 28a).

Habilitazio Klausulari dagokionean, 1979an harturiko erabakiak dira, zeintzuk herrialde azpigaratuen parte-hartzeari, elkarrekikotasunari eta tratu ezberdintasunari egiten dien erreferentzia³⁵.

GATSren V artikulua, azkenik, herrialde garatu zein azpigaratuek zerbitzuen esparruan garatutako merkataritza akordio erregionalen ondorioak barnebiltzen ditu³⁶.

ii. Merkataritza askeko akordioak

Nazioarteko merkataritzaren egoera ulertzeko, Merkataritza Askeko Akordioak (MAA-TLC) ulertzea ere beharrezkoa da, hauek ere merkataritzaren erregulazioan pisu esanguratsua duten instituzioak izaki.

Akordio hauen helburua MMEren antzera, zerga-mugen murrizketan edo ezabaketan oinarritzen da. Hala ere, akordio hauek alde-bikoak dira eta ez aldeaniztunak MMEan bezala. MME da MAAk nazioarteko merkataritza zuzenbidearen arabera garatzen direla eta akordioaren nondik-norakoak errespetatzen direla errebisatzen duen entitatea³⁷.

Lehenengo MAA XIX. mendeko 60. hamarkadan adostu zen³⁸. Ordutik eduki ezberdinei (medikamentuak, haziak, produktu agrokimikoak, etab.) erantzun izan dien MAA ezberdinak adostu dira. Badago MAAk MMEren marko ekonomikoa gainditzen duela irizten dionik, herrialde aberatsenek txiroenei euren irizpide ekonomikoak inposatzea baliatzen dituzten akordioak direla alegatuz bai eta azken hauek MMEen duten gaitasun politikoa baldintzatzen dutela argudiatuz³⁹.

Akordioei dagokienean, modalitate ezberdinetakoak daude eta, are gehiago, egon badago, optika eguneratu batetik begiratuta, paradoxikoa iruditu daitekeenik ere, AEB eta

³⁵ Organización Mundial del Comercio: *Trato Diferenciado y Más Favorable, Reciprocidad y Mayor Participación de los Países en Desarrollo*, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/docs_s/legal_s/enabling1979_s.htm (kontsulta eguna 2019ko azaroaren 28a).

³⁶ Organización Mundial del Comercio: *Acuerdo General sobre el Comercio de Servicios*, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/docs_s/legal_s/26-gats_01_s.htm#articleV (kontsulta eguna 2019ko azaroaren 28a).

³⁷ *Ibid.*, pp. 129-130.

³⁸ *Ibid.*, p. 129.

³⁹ OXFAN International, *Nuestro futuro por la borda. Cómo socavan el desarrollo los tratados de comercio e inversiones entre países ricos y pobres*, marzo de 2007, eskuragarri hemen: <https://www.laondadigital.uy/LaOnda2/301-400/372/B3.pdf> (kontsulta eguna abenduaren 2a).

Mexikoren artekoa kasu. Hala ere, esan beharra dago, jarraitu aurretik, Elkarlaguntza Ekonomikorako Akordioak edota Estabilizazio Akordioak ere egon badaudela, zeintzuetatik merkatu askearen eta merkatu bakarraren arteko momentuari erantzuten dion lehenak eta Europar Batasunean integratzeko trantsizio faseari bigarrenak. Esangura handia dauka, adibidez, Europar Batasuna izatea Txinaren bazkide komertzial handiena lehenengoa AEBekin MAA bat (TTIP) sinatzeko prozesuan murgildurik dagoen bitartean.

Interesgarria iruditzen zait, era berean, akordio hauen nolakotasuna krisiarekiko harremanean aztertzea; alegia, zein puntutara arte baldintzatu duen gaur-gaurkoz krisialdi ekonomikoak modu honetako akordioen eraketa. Izan ere, esan beharrik ez dago azken hiru hamarkadetan 1990etik hasita areagotu egin direla MAAk.

iii. Nazio Batuen Erakundeko Nazioarteko Merkataritza Zuzenbideko Batzordeak

Nazio Batuen Erakundeko Nazioarteko Merkataritza Zuzenbideko Batzordeak (NBENMZB) aurrera eraman duen jarduera aipatzea bereziki garrantzitsua da. Batzorde hau 1966. urtean sortu zuen Nazio Batuen Erakundeak merkataritza arauak maila internazionalen “modernizatzeko eta harmonizatzeko asmoz”⁴⁰. Bere funtzioen artean, mundu mailako lege eredu, akordio eta arauen ekoizpena aurkitzen dira, bai eta gida juridiko eta araugileak ahalbidetzea, aholkularitza, jurisprudentzia gaurkotua aurkeztea, asistentzia teknikoa ahalbidetzea legedia erreformatzeko zein merkataritza zuzenbide uniformearen inguruko mintegi erregional eta nazionalen antolaketa⁴¹.

Batzorde honen ereduak beraz, nazioarteko merkataritza doitzen dute. Izan ere, nazioarteko merkataritzak Estatu batetako barne zuzenbidearekin talka egiten duenean arazoak sortzen dira. Horren aurrean lege ereduak sortzen ditu batzordeak araudi nazionalek nazioarteko komertzioari eragin ahal dizkieten oztopoak baretu asmoz eta legislazioaren homogeneizazioa erraztera begira.

⁴⁰ Naciones Unidas, *Resoluciones aprobadas sobre la base de los informes de la Sexta Comisión*, Documentos Oficiales de la Asamblea General, A/RES/2205, adoptadas el 17 de diciembre de 1966, eskuragarri hemen: [https://undocs.org/es/A/RES/2205\(XXI\)](https://undocs.org/es/A/RES/2205(XXI)) (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 7a).

⁴¹ Naciones Unidas, *Ley Modelo de la CNUDMI sobre Transferencias Internacionales de Crédito (1992)* eskuragarri hemen: [https://uncitral.un.org/es/texts/payments/modellaw/credit transfers](https://uncitral.un.org/es/texts/payments/modellaw/credit%20transfers)(kontsulta eguna 2019ko abenduaren 7a).

Horren erakusleihen da 1992ko Nazioarteko Kredituen Transferentzien inguruko NBENMZ Ben Lege Eredua⁴². Honako hau agindu bidez hasitako kreditu-operazioei aplikagarria da eta, besteak beste, aginduaren libratzailearen inguruko auziak zein bankuaren ordainketa momentuaren ingurukoak arautzen ditu.

Hala eta guztiz ere, Nazioarteko Merkataritza Zuzenbidea ulertu ahal izateko, lehenengo eta behin Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren alorrean kokatu beharko litzateke; izan ere, beronen azpi-adar gisara kontzebitu baitaiteke lehenengoa. Honen isla da Nazio Batuen Erakundea izatea nazioarteko merkataritzaren arauen funtsezko araudia.

Nazioarteko Zuzenbide Publikoak espazioaren distribuzioaren auziari, gerrari zein honen akotazioari eta giza eskubideen errespetuari zuzentzen zaio bere arau-bideen bitartez⁴³. Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren funtsezko dokumentu gisara definitu daiteke gaur-gaurkoz Nazio Batuen Gutuna eta honek artikulatzen dituen printzipioen baitan eraikitako Nazio Batuen Erakundea (NBE aurrerantzean), biak ala biak nazioartean pisu handieneko akordio eta erakundeak izaki⁴⁴.

Bai Gutunak eta bai erakundeak zein Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo nazioarteko testuinguruari erantzuten diote. Bada, hiru instituzio hauek Nazioarteko Zuzenbide Publikoak hartu duen forma garaikidea dela esan daiteke, zeinak Carl Schmitt-en hitzetan, lurraren *nomos* berri bat ezaugarrituko lukeen; alegia, espazioaren ordenamendu juridiko berri bat⁴⁵.

Baina nazioarteko ordenamendu juridiko zein ekonomikoa zein egoeretan aurkitzen den konprenitzeko testuinguru geopolitikoa analizatzea pauso egokia dela ezin da ukatu.

Beraz, Nazioarteko Zuzenbidearen egungo testuinguratzea burutzea ezin funtsezkoagoa suertatzen da gaiaren gaineko azterketa osotasunean gauzatu ahal izateko.

2. Nazioarteko merkataritza eta zuzenbidearen bilakaera historikoa

⁴² Naciones Unidas, *Comisión de las Naciones Unidas para el Derecho Mercantil Internacional*, eskuragarri hemen: <https://uncitral.un.org/es/about> (kontsulta eguna 2019ko abenduaren 7a)

⁴³ C. Schmitt, *Teoría del Partisano*, Madrid, 2013, p. 11.

⁴⁴ Naciones Unidas, *Carta de las Naciones Unidas*, 24 de octubre de 1945, 1. UNTS XVI, art. 103.

⁴⁵ C. Schmitt, *El Nomos de la tierra en el Derecho de Gentes del Ius publicum europaeum*, Granada, 2003, pp. 48-62.

Nazioarteko merkataritzaren eta zuzenbidearen bilakaera historikoak txanpon beraren bi aurpegiak eratzen dituela esan daiteke. Ezin ebaluatu daiteke merkataritza berau arautzen duten irizpideetatik at eta alderantziz ezta ere. Esan daiteke, Marxek iradoki bezala, ekonomia-harremanak zuzenbidean topatzen dutela beren espresio juridikoa⁴⁶. Beraz, ezin dira partzialki analizatu; euren genesi historikoa aztertzeak osotasunaren ikuspegia zorroztea inplikatzeko du. Fernand Braudel historialariak esango lukeen moduan, merkatu kapitalistak soilik Estatuarekin identifikatzerakoan lortu omen zuen garaipena; hau da, Estatu izatera iritsi zenean⁴⁷. Analisi historikoa termino horietan kokatu behar da.

Azterketaren ernamuina XVI. eta XVII. mendeetan kokatzea ez litzateke inozokeria izango, garai hauetan ikusten baititu mundu mailako merkataritza modernoak beronen lehenengo hastapenak. Horrela, esan beharra dago Venezia, Genova eta Florentziako Estatu-hirietan erein zela merkatu modernoaren lehenengo hazia⁴⁸. Arrighiren hitzetan Venezia, Genova, Florentzia eta Milanen artean egituraturiko sistemak estatuen arteko sistema modernoaren aurrekariak izan ei ziren⁴⁹; alegia, *Ius Publicum Europaeum*-aren fase primitiboa⁵⁰. Izan ere, espazioaren gaineko ordena juridiko berri bat inplikatzeko sistema berri honek, nazioarteko zuzenbide publikoaren modernizaziorako ateak ireki zirelarik horrela. Oraindik ezin hitz egin genezake *Ius Publicum Europaeum*-etaz bere zentzu hertsian, bere aurrekariak baizik.

Bada, merkatuaren modernizaziorako elementurik esanguratsuen bere izaera kapitalistak ahalbidetzen zuen. Ordurako garatzen hasia zen ekoizpen eredu kapitalistak, lanaren banaketa sozial berriekin eta ekoizpen bitartekoen garapenarekin, nazioarteko merkataritza baldintzatzen zuen. Estatu-hirietako agintariak espazioaren ordenamendurako zuten gaitasuna kapitalaren metaketarako zuten gaitasunak ahalbidetzen zuen⁵¹; zehazki ekialde hurbilarekin eta ekialde urrunarekin egituraturako zirkuitu merkantilaren monopolioak⁵². Izatez, ez zeukaten lurraldea kontrolatzeko helbururik, aberastasun ekonomikoa eta irabaziak edukitzeko intentzioa baizik. Horretarako, noski, lurraldea kontrolpean edukitzea oinarritzeko baldintza zen. Beraz,

⁴⁶ K. Marx, *Contribución a la Crítica de la Economía Política*, México, 1989, pp. 3-9

⁴⁷ F. Braudel, *El Mediterráneo y el Mundo Mediterráneo en la época de Felipe II*, Madrid, 1976, pp. 64-65

⁴⁸ *Ibid.*, p. 65.

⁴⁹ G. Arrighi, *El largo siglo XX*, Madrid, 1999, p. 53.

⁵⁰ C. Schmitt, *El Nomos de la tierra en el Derecho de Gentes del Ius publicum europaeum*, Granada, 2003, pp. 133-147.

⁵¹ G. Arrighi, *El largo siglo XX*, Madrid, 1999, p. 56.

⁵² *Ibid.*, p. 57.

territorialismotik haratago, interes kapitalistek bultzatuta ekoizten hasi zen ordena juridiko mundial berria, nahiz eta hasiera batean Italiako iparraldean kontzentratu berau⁵³.

Hala eta guztiz ere, hiri-Estatuen arteko egituraketa ekonomiko-juridiko batera mugatzen zen sistemak sabaia jo zuen Herbeherek kapitalaren akumulazioak galdegiten zituen espantsiorako beharrei ateak ireki eta dominazio sistema berrituago bat eratu zutenean⁵⁴. Italiarren aginte gaitasuna ordura arte erdi-aroko ereduaren baitan garatu zen eta horrek bere garapenaren mugak topatu zituen.

Beraz, garai gorabeheratsuak izan arren, Portugal eta Espainiaren arteko talkarekin, bigarrenak Aitasaindutza-rekin zein Habsburgo etxearekin buruturiko aliantzarekin edota 30 urteetako gudarekin, azkenean Westfaliako 1648ko Bakearen bitartez nazioarteko sistema berri batek hartu zuen gorpuzkera. Hemendik aurrera jada ez da erdi-aroko ereduaren baitan oinarrituko Herbehereen edo Herrialde Batuen agintea, eredu modernoaren baitan baizik. Momentu honetan hasiko da, Holandaren inizatibaz, nazioarteko zuzenbide publikoaren etapa modernoa, *Ius Publicum Europaeum*-arekin.

Schmitt-en arabera, lurraldetasun statu quo-a sostengatzeko funtzioa bete behar zuen nazioarteko zuzenbideak eta Westfaliako Bakeak horri erantzuten omen zion⁵⁵. Izan ere, integritate territorialaren printzipioaren baitan funtzionatzea adostu baitzen itun hau, Europako Estatu ezberdinen arteko berdintasunean oinarritutako ordena territoriala izango litzatekeena. Horrekin, Estatu-nazio ezberdinen arteko pluribertso⁵⁶ bat osatuko zen, kosmobisio inperialistetatik haratago. Hau da, espazioaren eta gerraren zein honen erregulazioaren ordenamendu berri batek forma hartuko zuen Westfaliako Bakean, non Estatu-nazioen gainetik egon zitekeen organismo politiko bat egotetik urrun, zuzenbidea eta boterea entitate territorialen arteko berdintasun politikoko harremanen bitartez ebatziko ziren⁵⁷.

Hala ere, Westfaliako Bakeak helburu sozialik ere izan bazuen. Ez da kasualitatea Hogeita hamar Urteetako Gerran zehar sorturiko zerga-mugak ezabatzeko klausulak ekoitzi izana bai eta jabetza eta merkataritza babesteko arauak sortu izana itunaren

⁵³ *Ibid.*, p. 50.

⁵⁴ *Ibid.*, p. 56.

⁵⁵ C. Schmitt, "El concepto de imperio en el derecho internacional", *Revista de Estudios Políticos*, Madrid, núm. 1, 1941, p. 86.

⁵⁶ C. Schmitt, *El concepto de lo político*, Madrid, 1991, pp. 28-31.

⁵⁷ Leo Gross, *Derecho Internacional y Organización*, Filadelfia, 1968, 45-67.

ondoren⁵⁸. Horrek zera inplikatzen zuen: salerosketak aurrera eramateko askatasuna herrialde ezberdinen artean, zibilak barne, euren agintariak gerran egonik ere⁵⁹. Alegia, Estatu-nazioen arteko guda egoerak existiturik ere, bake komertzialak berme bat behar zuen izan eta horrek Westfaliako Bakeak egituraturiko ordena espazialaren nolakotasuna islatzen zuen. Iniziatiba diplomatikoa Holandatik etorrira, Estatu-nazio honen gaineko agintea zuen oligarkiaren interesak asetzen zituela ezin uka; oligarkia holandarraren interes ekonomikoak⁶⁰. Izan ere, agintari holandarren botere ekonomikoak mundu mailako merkataritza eta finantza zirkuituetan artikulatzen zuen bere gaitasuna⁶¹ eta lehia askeak edo merkataritza askeak mesede egiten zion zentzu horretan, Italiako estatu-hiriei ez bezala. Azken hauek kontrolaturiko merkatuak askoz ere mugatuagoak ziren eta beraz, ez zitzairen hainbeste interesatzen mundu mailako merkataritza sistemarik.

Horretaz gain, holandarrek XVII. mendean garaturiko teknologia militarrek⁶² euren nazioarteko potentziaren izaera errotzen lagundu zuen, hegemonia ekonomikoa izateaz gain hegemonia politikoa izatea lortu zutelarik.

Hala eta guztiz ere, Holandaren hegemonia zalantzan jarriko da Britainia Handiaren esku-hartzearekin Westfaliako Bakea sinatu bezain laster. 1652an Guda Anglo-Holandarrek eztanda eginen dute eta 1815ean Gerra Napoleonikoak amaitu arte iraungo du bi Estatu-nazio hauen arteko etsaitasunak munduko agintea sostengatzera begira⁶³. Hasieran Estatu-egituren apropiazioaren baitan emango dira talkak eta ondoren Estatuaren botere iturrien gaineko kudeaketa-ahalmena lortzera begira; hots, merkataritza zirkuituen gaineko agintea gauzatzera begira, horretarako Holandak zerabilen antolakuntza militarra gainerako Estatu europarretara zabalduko delarik eta Estatu periferiko eta europarren arteko abagune militarra ikaragarri areagotuko delarik⁶⁴.

Gainera, Britainia Handiaren kolonialismoak eta esklabotasun kapitalistak⁶⁵ abantailak emango dizkio aurrerantzean Holandarekiko, bai eta gerraren antolakuntzan eta

⁵⁸ G. Arrighi, *El largo siglo XX*, Madrid, 1999, p. 60.

⁵⁹ *Ibid.*, p. 61.

⁶⁰ *Ibid.*, p. 62.

⁶¹ *Ibid.*

⁶² *Ibid.*, p. 63.

⁶³ *Ibid.*, p. 65.

⁶⁴ *Ibid.*, pp. 66-67.

⁶⁵ *Ibid.*, pp. 69-70.

Estatuaren eraikuntzan oinarritutako ekonomia nazionalaren eraikuntzak⁶⁶. Berriro ere merkatu eta Estatuak bat egingen dute.

Horrela, Britainia Handia bilakatuko da, esponentzialki eta Frantziako Estatuak egingo dion kompetentziarekin bada ere, hegemonia ekonomiko mundiala, Westfaliako Bakearen garapena eta berregituraketa⁶⁷ sostengatuko duelarik nazioarteko zuzenbide publiko bezala; izan ere, jada XVII eta XVIII. mendeetan kolonoen independentzia gerrak, klase ertain metropolitarraren sorrera, Europaz gaindiko espazioaren kolonizazioak (garapen progresiboa izango duena XX. mendera arte luzatzeraino) etab. bezalako fenomenoek esku-hartuko dute koiuntura sozio-politikoan. Bada, Westfaliako Itunaren beste kontzepzio bat jarriko du martxan Britainia Handiak, hain zuzen ere bere etekin ekonomikoei bide egokia ahalbidetzeko nazioarteko zuzenbide sistema berri batekin; hau da, merkataritza askeko inperialismoaren arabera egituraturiko nazioarteko zuzenbidearekin.

Azken finean, Erresuma Batuak merkatu askearen politika garatuko du, bere barne-merkatura mota guztietako merkantziak sartzeko aukera irekiko duelarik eta horrela Estatu-nazio gehienekin merkataritza-harremanak adostuko dituelarik. Guztiarekin, mendebaldeko zibilizazioak inoiz ezagutu gabeko egoera batek hartuko du esku; 1815 eta 1914 arteko ehun urtetako bakea⁶⁸. XIX. mendea izanen da batez ere Britainia Handiaren hegemoniaren periodoa eta 1860. urtean merkataritza askearen eredu aldeaniztuna sortzeko aukera egongo den arren Tratatu Anglo-Frantsesarekin⁶⁹, honakoa 1879an amaituko da alemaniar protekzionismoa dela medio⁷⁰.

Beraz, hegemonia britainiarrak 1914ra arte iraunen du. Horren ondoren Lehen Mundu Gerrak hartuko du lekua eta honen ondoren, 1919an, Westfaliako Bakearen logikarekin guztiz kontrakotasunean formulatuko den irizpide juridiko internazional batek egingo du agerraldia: Versailleseko Akordioak edo hobeto esanda, Nazioen Elkartearen Paktuak⁷¹. Akordio honetan maneatuko den irizpideak Estatuaren lurraldetasunean oinarritutako

⁶⁶ *Ibid.*, p. 68.

⁶⁷ *Ibid.*

⁶⁸ K. Polanyi, *La gran transformación*, Madrid, 1989, p. 5.

⁶⁹ Cobden-Chevalier Merkataritza Ituna, 1860ko urtarrilaren 23koa

⁷⁰ G. Arrighi, *El largo siglo XX*, Madrid, 1999, p. 74.

⁷¹ Pacto de la Sociedad de las Naciones, de 28 de junio de 1919.

nazioarteko zuzenbide publikoaren logika gaindituko du Estatuaren subiranotasun territorialaren gainetik egongo litzatekeen entitatea sortuz⁷².

Akordio honetan jada Ameriketako Estatu Batuen protagonismoa nabarmentzen hasiko da, garaiko AEBetako Wilson presidentea izango baita honen sustatzaile nagusia. Hala eta guztiz ere, akordioak Nazio Batuen Gutunaren nolabaiteko aurrekari baten izaera hartuko du; izan ere, ez ditu fruitu oparoak emango, 1929ko krisi finantzarioak eta Bigarren Mundu Gerrak erakutsiko duten bezala. Ondoren, Bretton Woods-eko akordioa eta hortik eratorritako nazioarteko zuzenbide publikoaren eta merkatu kapitalistaren adiera modernoek hartuko dute lurra, gorago ikusi dugun bezala XX. mendeko bigarren erdialdean AEBk izanen direlarik potentzia ekonomiko eta politiko nagusia.

III. NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAREN ETA MERKATARITZAREN ANALISIA MARX ETA CARL SCHMITTEN TEORIETATIK

1. Azterketarako metodoa

Nazioarteko merkatuaren eta zuzenbidearen barrunbeen gaineko diagnostiko bat burutu aurretik diagnosia gauzatzeko modalitatean zentratzea funtsezkoa da, izan ere, analisiaren nolakotasuna ezinbestean baldintzatzen du honek. Horrela, nazioarteko merkataritzaren funtzionamendua ezagutzeko erabiliko dudako metodoa, metodo dialektiko⁷³ gisara kontsideratzen dena izango da. Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren azterketarako Carl Schmitt-en doktrina baliatuko dudako arren –bere posizioetan oinarrituko bainaiz oro harberau nazioarteko merkataritzaren gainean burutuko dudako azterketarekin organikoki lotzen saiatuko naiz.

Metodo dialektikoa Marx-ek gizarte zibilaren azterketa gauzatzeko bitarteko analitikoa izan zen 1850 eta 1860ko hamarkadetan⁷⁴. Metodo honek abstrakzioaren lanabesa

⁷² C. Schmitt, *El Nomos de la tierra en el Derecho de Gentes del Ius publicum europaeum*, Granada, 2003, pp. 319-338.

⁷³ E. Iliénkov, *Dialéctica de lo abstracto y lo concreto en “El Capital” de Marx*, Quito-Ecuador, 2017, p. 220-230.

⁷⁴ *Ibid.*

inplikatzeko du. Ez da metodo historizista bat⁷⁵; hau da, ez du jotzen gizartearen genesi historikora gizarte modernoa ulertu ahal izateko. Aitzitik, gizarte modernoak hartzen dituen forma fenomenikoak lehenesten ditu abiapuntu analitiko bezala eta horiek diseminatzen joaten da astiro-astiro, fenomeno bakoitzean eragiten duten faktore edo determinazioak abstraituz eta horrela fenomenoaren barreneko logika ezagutzuz⁷⁶.

Azken finean, MME, NDF, MB edota MAAzein NBE edota NATOk berak zeri erantzuten dioten jakiteko baliatuko dudan metodoa da. Erakunde transnazional hauek existitzen direla eta nazioarteko merkataritza eta nazioarteko ordena juridikoan funtzio garrantzitsuak betetzen dituztela hiritar ororen zentzu komunean egituraturik egon daitekeen ideia bat izanik ere, horrek ez du esplikatzen erakunde multzo honen izateko arrazoia.

Metodo honen bitartez hasiera batean eta bat-bateko begirada batekin ezagutu ezin daitekeen errealitatea ezagutu ahalko litzateke; izan ere, aparientzian kaotikoa dirudien zerbaitek, behin ikerketa burututa zein logikari erantzuten dion jakin daiteke⁷⁷. Beraz, itxuraz eta kanpotik hauteman eta ezagutu daitezkeen organismo merkantil eta juridikoen barrenak zeintzuk diren ikuskatzeko aukera ahalbidetzen duela esan daiteke.

Aipatu erakundearen logika operatiboa ulertzeko, baina, nazioarteko merkataritzaren bueltan kokatu behar da abiapuntu analitikoa.

2. Nazioarteko merkataritzaren barne-arkitektura eta dinamikaren logika

Nazioarteko merkataritza gure eguneroko bizitzaren parte da. Txinan ekoiztutako mugikorrak erosterakoan edota CAF bezalako enpresen jarduera ekonomikoa begiztatzerakoan, esate baterako, nazioarteko merkataritza puri-purian ari dela ematen ondoriozta daiteke. Esan daiteke ia-ia gizarte historiko guztietan existitu dela merkataritza eta zehazki lur eta itsasozko merkataritza internazionala⁷⁸.

⁷⁵ C. Ruiz Sanjuán, *Libertad, igualdad y propiedad en la sociedad capitalista*, Daimón, Revista Internacional de Filosofía, núm.58, 2013, p. 136.

⁷⁶ K. Marx, *Elementos fundamentales para la crítica de la economía política, (Borrador) 1857-1858*, Madrid, 1971, pp. 20-30.

⁷⁷ *Ibid.*

⁷⁸ C. Ruiz Sanjuán, *Libertad, igualdad y propiedad en la sociedad capitalista*, Daimón, Revista Internacional de Filosofía, núm.58, 2013, pp. 131-133.

Hala ere, nazioarteko merkataritza eta orokorrean merkatuaren logika ulertu ahal izateko, aintzat hartu behar da honakoa: merkantzia eta diruaren arteko etengabeko salerosketa batetan oinarritzen dela. Bizitzako esparru guztietan erosten eta saltzen dira mota guztietako salgaiak, diruak burutzen duelarik mediatzaile edo bitartekari funtzioa⁷⁹.

Marx-en analisiaren hastapen-puntua honakoa da: salgaien eta diruaren zirkulazioa prozesu sozial bat baldin bada, nondik datoz salgaiak euren prezioekin eta zeren arabera izango dugu diru kopuru bat edo beste salgai gehiago edo gutxiago erosteko? Zalantzan jartzen dena azken finean merkatuan oinarritutako gizarteak ahalbidetzen duen fetixismoa da⁸⁰; izan ere, merkatuan denok gara askeak nahi dugun tokian saltzeko geure lan-indarra eta nahi dugun tokian erosteko produktu mota ezberdinak. Era berean, merkatuan diruaren bitartekaritzaren bidez, denok berdintasunez jarduten dugu, eskubide eta betebeharrak berdinekin burutzen ditugularik adostasun kontraktual ezberdinak⁸¹. Hala eta guztiz ere, errealki merkatuan saltzeko ditugun objektuak (material zein immaterialak) ezberdinak dira egoera partikularren arabera eta aldi berean, gure erosketa ahalmena eta kontsumo gaitasuna bestelakoa da orokorrean. Merkatuaren logika bere osotasunean ezagutzeko, alemaniarrak, bada, zirkulazioaren esfera hein handi batean baldintzatzen duen ekoizpenaren esferara salto egitea guztiz komenigarria dela hausnartzen du, esparru honetatik hauteman daitezkeelakoan merkatuak berak ematen ez dituen erantzunak; izan ere, merkatuaren jarioa ulertzeko lehenengo merkantziak nondik datozen eta dirua nondik datorren, alegia, zeri erantzuten dion ulertu behar da.

Merkantziak saltzeko, lehenengo ekoitzi egin behar dira. Ondoren, prezio batean edo bestean salduko dira. Salgaien balioa baldintzatzen duena, eskaintza eta eskariaren legetik haratago, berau ekoizteko sozialki beharrezkoa den lan-denbora dela adierazten du Marxek⁸².

Eskaintza eta eskariaren legearen arabera, salgai baten eskaria eskaintza baina handiagoa baldin bada, alegia erosle gehiago baldin badaude saltzaileak baino, merkantziaren prezioa handitu egingo da. Joera aurkakoa bada, berriz, prezioa jaitsi egingo da.

⁷⁹ K. Marx, *Elementos fundamentales para la crítica de la economía política, (Borrador) 1857-1858*, Madrid, 1971, p. 127.

⁸⁰ C. Ruiz Sanjuán, *Libertad, igualdad y propiedad en la sociedad capitalista*, Daimón, Revista Internacional de Filosofía, núm.58, 2013, pp. 139 y ss.

⁸¹ *Ibid.*, p. 140.

⁸² K. Marx, *Trabajo asalariado y capital*, Moscú, 1977, pp. 15-18.

Eskaintzak eta eskariak bat egingo balute, batzuetan gertatu ohi den bezala, orduan salgaiaren balioak eta prezioak ere baliokideak izango lirateke⁸³.

Ikusten den bezala, eskaintza eta eskariaren lege honen atzean balioaren legeak hartuko luke esku. Hau da, produktu bat ekoizteko beharrezko den denboraren arabera, beronen balioa altuagoa edo baxuagoa izanen da eta prezio batean edo bestean salduko da. Ekoizpen kostuz ari gara hizketan, funtsean⁸⁴. Beraz, orduan eta gaitasun produktibo handiagoa, orduan eta produktu gehiago ekoizteko ahalmena gero eta denbora gutxiagoan eta hargatik, berauek merkatuan prezio baxuagoan edo altuagoan saltzeko ahalmena. Izan ere, eskaintza eta eskariaren legeak ere determinatu arren salgaiaren prezioa, balioaren legea da berau azken instantzian determinatzen duena⁸⁵. Lehenengoa beraz, salgaiaren ekoizpen denborak edo bere balioak baldintzatzen du.

Horrekin batera, enpresen arteko zein langileen arteko lehia dela medio, produktibitate-tasa orokorra areagotu egiten da eta salgaiak ekoizteko sozialki beharrezko den lan denbora esponentzialki jaisten da⁸⁶. Enpresek aberastasuna metatzeko lehian zein langileek lanpostuak lortzeko gudan, salgaiak ekoizten dituzten ekoizpen bitartekoen gainean iraultza tekniko-zientifikoak ematen dira, gradualki gero eta “produktiboagoa” delarik ekoizpen ziklo bakoitza⁸⁷. Bada, hemen elementu oso esanguratsu batek esku-hartzen du: lan-indar merkantziaren ekoizpen eta salmentak.

Lan-indarraren ekoizpena elementu erreproduktibo fisiologiko, biologiko, kultural eta politikoen bitartez burutzen da⁸⁸. Langileak bizi ahal izateko, alokairua edo hipoteka ordaindu behar ditu, eguneroko otorduak, argia, ura, gasa, arropa, aisialdia, hezkuntza, etab. Ekoizpen hau soldataren bitartez burutzen da eta beraz, lan-indarraren balioa, beste edozein merkantziarena bezala, berau ekoizteko sozialki beharrezkoa den lan-denboraren arabera neurtuko da. Auzia da: nolaz neurtu langilearen ekoizpen balioa? Bada, langilearen ekoizpenerako funtsezkoak diren merkantzien balioa neurtuz: etxebizitza alokairua edo hipotekaren batz bestekoa, otorduen batz bestekoa, argiarena, urarena,

⁸³ *Ibid.*, pp. 19-30.

⁸⁴ *Ibid.*

⁸⁵ *Ibid.*

⁸⁶ *Ibid.*

⁸⁷ K. Marx, *Elementos fundamentales para la crítica de la economía política, (Borrador) 1857-1858*, Madrid, 1971, p. 349.

⁸⁸ K. Marx, *Trabajo asalariado y capital*, Moscú, 1977, pp. 19-30

etab. Beraz, elementu hauek merkatuan duten balioaren batz bestekoa lan-indarraren balioaren alikuota izango da⁸⁹.

Azalpen honek merkatuan langileek duten erosketa-ahalmenaren nolakotasuna adierazten digu. Eta txanponaren beste aldean, noski, jabetzak, azpiegitura, logistika eta oro har dirua dutenen erosketa-ahalmena aditzera ematen da, zeintzuk haien indarrak birsortzeko elementuetatik haratago, lan-indarra bera, azpiegitura, makinak, lur-eremu handiak, lehengaiak eta abar erosteko gaitasuna duten. Hauei Marx-ek jabeen klasea edo burgesia deitzen die⁹⁰.

Lan-indar merkantziaren salerosketa prozesuan, baina, merkataritza modernoa gainontzeko gizarte historiko guztietan emandako merkataritza-harremanetatik bereizten duen ezaugarri batek esku-hartzen du; izan ere, kontratu honetan ez dira balio bera duten dirua eta merkantzia eskualdatzen, formalki kontratu justu eta berdintasunezkoa dirudien arren. Izatez, berdintasunean eta askatasunean oinarrituriko adostasun honetan lapurreta bat ematen da⁹¹. Zergatik?

Gorago aipaturiko balioaren legearen arabera, salgaiak euren ekoizpen kostuaren arabera salerosten dira. Lehiak ekoizpen bitartekoen iraultza tekniko eta zientifikoaren bitartez produktibitate-tasa orokorra areagotzen duen heinean, lan-indarra ekoizteko beharrezko diren elementuen balioa progresiboki jaisten da eta horrekin batera lan-indarraren balioa bera⁹². Jo dezagun langile baten kontratu ohiko baten baitan 1.200 eurogatik enpresariak langilea 8 orduz erabiltzeko eskubidea duela. Alegia, langilearen balioa (8 ordu) termino monetarioetan neurtuta 1.200 eurokoa dela, langile batek diru horrekin lortzen baitu bere bizitza zein bere familiarrena aurrera ateratzea. Aitzitik, lan-indarraren balioa sozialki berau ekoizteko beharrezkoa den lan-denborarekin neurtzen bada eta berau jaisten doan bitartean garapen zientifikoagatik (adibidez: 8 orduatik 6 orduara) langilea 8 orduz erabiltzen bada, kontratuaren izaera ez da inondik inora baliokidea. Bada, enpresariak bere balioaren arabera erabiliko balu, 6 ordutan baliatu beharko luke baina ez da horrela gertatzen. Beraz, 2 ordu horietan egiten duen lan erantsiarekin balio erantsia sortzen du langileak eta honako hau enpresariak poltsikoratzen du bere osotasunean⁹³. Plusbalioaren

⁸⁹ *Ibid.*, pp. 19-30.

⁹⁰ K. Marx y F.Engels, *El Manifiesto Comunista*, Barcelona, 2017, pp. 43-47.

⁹¹ C. Ruiz Sanjuán, *Libertad, igualdad y propiedad en la sociedad capitalista*, Daimón, Revista Internacional de Filosofía, núm.58, 2013, p. 139.

⁹² K. Marx, *Trabajo asalariado y capital*, Moscú, 1977, pp. 19-30.

⁹³ *Ibid.*

teoria⁹⁴ honetan sakondu zuen Marx-ek gizarte modernoaren edo gizarte zibilaren nolakotasuna baldintzatzen zuen faktorerik esanguratsuen; hau da, gainerako gizarteetatik ezberdintzen zuen ezaugarri nabarmenena, nahiz eta lehen begiradan ikusezina suertatu. Adam Smith eta David Ricardo ekonomia politikoaren erreferente nagusien lana kritikatu⁹⁵ eta gainditzen duela esan daiteke bere *Kapitala* lan maisuan. Hain zuzen ere, Marxek soldatapeko lanaren fenomeno honi kapital harremana⁹⁶ deitzen dio; hau da, diruaren eta lan-indar merkantziaren arteko erlazio historiko eta berezi honi.

Horrela, gero eta balio erantsi edo plusbalio gehiago erauzi kontratu harreman honetan, gero eta aberastasun gehiago metatzeko aukera irekitzen da eta hori da, hein handi batean, ekoizpen eredu kapitalistaren izateko arrazoia; bada, kapitalaren metaketa etengabea⁹⁷.

Kapitalaren metaketa zikloak D-M-D' formularen bitartez ilustratzen da. Ekuazio honetan, alde batetik dirua duten horiek azpiegituran (lur-eremuak, pabiloiak...), makinetan eta lehengaietan, hau da, kapital konstantean inbertitzen dute dirua, eta bestetik, lan-indarra (kapital aldagarria) erosteko erabiltzen dute⁹⁸. Prozesu honetan elementu horiek elkar-harremanean jartzerakoan plusbalioa ekoizten da, zeinak ekoizkinen forma hartzen duen. Hargatik, ekoizkin hauek artikulatzen duten balio erantsia merkaturatu egin behar da berau irabazi - hasieran inbertituriko dirua baino kantitate handiagoan- bilakatu eta beste metaketa ziklo bat ireki ahal izateko, oraingoan metaketa zikloaren erreprodukzio hedatua izango dena⁹⁹.

Merkatuak, hargatik, ekoizpenaren esferan erauzten den plusbalioa errealizatzeko edo saltzeko funtzioari erantzuten dio, alegia diruaren forman plusbalioa metatu eta berriro ere kapital bezala funtzionaraziz metaketa ziklo berri bat irekitzeko. Merkatutik abiatzen da kapitalaren metaketa prozesua eta merkaturian amaitzen da¹⁰⁰.

Beraz, merkatuak eta produkzioak errealitate sozialaren gehiengoa hartzen dute, horietatik kanpo apenas egiten baita bizitza sozialik. Guztiarekin, aintzat hartu beharrekoa da bi geruza hauek kapitalaren metaketa irizpideetara mugaturiko espazio sozialak direla

⁹⁴ K. Marx, *Elementos fundamentales para la crítica de la economía política, (Borrador) 1857-1858*, Madrid, 1971, pp. 259-262.

⁹⁵ *Ibid.*, p. 262.

⁹⁶ *Ibid.*, pp. 224-233.

⁹⁷ *Ibid.*, p. 389.

⁹⁸ K. Marx, *El Capital: Crítica de la economía política*, México, 2014, pp. 241-255.

⁹⁹ *Ibid.*, p. 695.

¹⁰⁰ C. Ruiz Sanjuán, *Libertad, igualdad y propiedad en la sociedad capitalista*, en Daimón, Revista Internacional de Filosofía, núm.58, 2013, pp. 133-138.

eta hargatik, espazioaren gaineko egituraketa zehatz baten isla direla. Orduan eta diru gehiago, espazioa baldintzatzeko gaitasun handiagoa. Orduan eta kapital gehiago metatu, kapital metaketaren baitan espazio gehiago artikulatzeko ahalmen sendoagoa.

Beraz, ekonomia modernoaren izaera kapitalista merkantilak baldintzatzen du osotasunaren jario soziala eta guzti-guztia kapitalaren metaketaren arabera egituratzeko joera du¹⁰¹.

Hala eta guztiz ere, guzti honekin batera merkataritzaren zein gizakiaren historiaren funtsezko ezaugarri edo motorra dena aipatzen du Marx-ek: klase borroka¹⁰². Langileak merkantzia gisara eta beraz objektu gisara existitzetik haratago subjektu moduan agertzen diren heinean, nazioarteko merkataritza baldintzatu duen elementu bat izan da. Esaterako, XIX. mende amaierako grebek soldaten igoerak zein lan-orduen jaitsierak eta orokorrean lan-baldintza egokiagoak lortzeko borroka egin izanagatik, hori ere ekoizpenean iraultza teknikoak gauzatzeko arrazoietako bat izan zen¹⁰³; bestela, plusbalio kantitatearen joera berankorra medio, irabazi tasa galeretan bilakatzeko aukera existitzen zen eta hori bateraezina zen merkatuaren irabazi-logikarekin. Beraz, XX. mende hasieran nazioarteko merkataritza baldintzatu duen ekoizpen-eredu fordista¹⁰⁴, ezin dugu errealitate honetatik at ulertu.

Baina, haratago, ondoren nazioarteko zuzenbidearekin zerikusi handia izango duen langile politikaren eraikuntzak haren lehenengo esperientziak utziko ditu XX. mende hasieran sobietar iraultzarekin. Honekin, langileria kapital-harremanaren baitako aldarrikapen ekonomikoak egitetik haratago kapital-harremanaren eta merkatuaren gaindipena formulatzera iritsiko da, Estatuaren konkistaren bitartez¹⁰⁵. Honek, noski, etsaitasunaren kontzeptu berri bat eta gerra egiteko modu berri batzuk ezarriko ditu mahai gainean, zeinak Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren izaera modernoa hein handi batean baldintzatzera ere iritsiko den.

¹⁰¹ K. Marx, *El Capital libro VI Capítulo VI (inédito), resultados del proceso inmediato de producción*, México, 2009, pp. 72-77.

¹⁰² K. Marx y F. Engels, *El Manifiesto Comunista*, Barcelona, 2017, pp. 43-47.

¹⁰³ Colectivo Aufheben, *¿Teoría de la decadencia o decadencia de la teoría?*, Rebelión, eskuragarri hemen: <http://www.rebellion.org/hemeroteca/izquierda/cortes110602.htm> (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 7a).

¹⁰⁴ L. Borges, *Fordismo y taylorismo: similitudes y diferencias*, 12 de noviembre de 2018, eskuragarri hemen: <https://blog.luz.vc/es/que-es/fordismo-y-taylorismo-similitudes-y-diferencias/> (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 8a).

¹⁰⁵ M. Tronti, *Obreros y capital*, Madrid, 2001, pp. 237-244.

3. Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren dinamika

Nazioarteko zuzenbidearen dinamika eta zein irizpideren baitan egituratzen den erantzuteko, batez ere Carl Schmitt-en teoria juridikoan oinarrituko naiz. Legelari alemaniarrek 3 elementutan kokatzen du nazioarteko zuzenbidearen artikulazio prozesua: espazioa, gerra eta bakea¹⁰⁶.

Schmittek dio *statu quo* territorial bat sostengatzeko funtzionatu beharko lukeela nazioarteko zuzenbideak, hau da, jada existitzen den ordena espaziala mantentzeko egin behar duela lan¹⁰⁷. Horretarako, *nomos* kategoria erabiltzen du, horrela definitua: “*mundua ordena determinatu batean banatu eta zatitzen duen neurria eta zentzu horretan, ordenazio politiko, sozial eta erlijiosoaren ordenamendu forma ordezkatzeko duena*”¹⁰⁸.

A) Espazioaren ordenamendua

Espazioaren kategoria da nazioarteko zuzenbidearen zentroan aurkitzen den funtsezko ardatza eta beronen distribuzio zehatza da ordena juridiko internazionalaren ezaugarria; hau da, espazioaren egituraketa konkretua, zeinak agindu normatiboetatik haratago, ordena erreal bat arautzen duen¹⁰⁹.

Beraz, Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren dinamikak espazio orokorraren antolaketa zehatz bat gordetzen du bere baitan.

Lurraldearen ordenamenduaz gain, noski, gerraren kontzeptua erdigunean ipini beharreko gai bat da nazioarteko zuzenbidean eta horrekin batera bakearena. Schmitt-en arabera, espazio lurterra arautu daitekeen bezala, aire-espazioa eta itsaso-espazioa arautzeak gerra eguneroko ogi bilakatzeko baldintzak sortzen ditu, zailagoa baita horien distribuzio egoki

¹⁰⁶ C. Schmitt, *Teoría del Partisano*, Madrid, 2013, pp. 9-17.

¹⁰⁷ G. Tripolone, *La doctrina de Carl Schmitt sobre derecho internacional*, Anuario Mexicano de Derecho Internacional, vol. XIV, 2014, pp 352-364.

¹⁰⁸ C. Schmitt, *El Nomos de la tierra en el Derecho de Gentes del Ius publicum europaeum*, Granada, 2003, p. 53.

¹⁰⁹ *Ibid.*, p. 53.

bat burutzea¹¹⁰. Beraz, espazio lurterra da zuzenbidearekin lotura handiagoa duena, besteek problematika handiagoak artikulatzen dituztelarik.

B) Gerra eta bakearen ordenamendua

Horrela, gerraren gainean maneiatzen den kontzepzioaren arabera, nazioarteko zuzenbidearen nolakotasuna ere aldatu egingo da.

Hain zuzen ere, *Ius Publicum Europaeum*-ean gerra modu klasikoan ulertzen zen. Hau da, gerrak etsaitasunak inplikatzeko zituen heinean, berauen arteko etsaitasuna errespetuzkoa zen eta etsaiari ez zitzaion kriminalaren izaera egozten¹¹¹. *Iustus hostis* kontzeptuarekin¹¹² ezaugarritzen zen etsaia eta etsaien arteko gerrak absolutuak izan arren, guda totalak eta suntsiketak gerrak ekiditen zituen *ius in bello*¹¹³ delakoa existitzen zen; gerra, kasu honetan, zibilaren eta ofizialaren artean bereizten laguntzen zuena. Beraz, nazioarteko zuzenbideak gerraren gainean arautzen zuen, baina arautze hori jada existitzen zen gerraren eta etsaitasunaren kategorizazio zehatz baten espresio juridikoa besterik ez zen. Horrela, funtsezko elementua definizio honetan judizio elementu subjektibo moralen ausentziak ahalbidetzen du eta zentzu honetan hitz egiten du Schmitt-ek zuzenbidearen autonomiaz¹¹⁴; bada, moralarekiko garatzen duen autonomiaz alegia.

Nazio Batuen Gutunarekin irekitzen den Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren ikuskeratik, aldiz, gerraren eta etsaitasunaren kontzepzio oso ezberdin bat da maneiatzen dena¹¹⁵. *Ius Publicum Europaeum*-arekin alderatuta, jada hemen etsaiaren kriminalizazioa eta elementu moralen esku-hartzea konstante bat izango da. Horri erantzuten dio, argi eta garbi, esaterako, Nazio Batuen Gutuneko hitzaurrean bakearen mantentzeko burutzen den formulazio inplizituak, zeinak, “indar armatua soilik interes komunaren izenean

¹¹⁰ C. Schmitt, *Teoría del Partisano*, Madrid, 2013, p. 12.

¹¹¹ *Ibid.*, p. 13.

¹¹² *Ibid.*, p. 12.

¹¹³ *Ibid.*

¹¹⁴ C. Schmitt, *El Nomos de la tierra en el Derecho de Gentes del Ius publicum europaeum*, Granada, 2003, p. 275-303.

¹¹⁵ *Ibid.*, pp. 275-303.

erabiliko dela”¹¹⁶ adierazten duen; interes komuna gerra mundialik gabeko bakearen mantenu gisara definituz.

Definizio hau burutzerakoan, gerrak egon bazeuden, eta are gehiago, Gerra Hotzaren garaia ireki zen, baina badirudi bakearen gaineko kontzepzio hau nabarmenduko dela. Beraz, Bigarren Mundu Gerran protagonismoa izan zuten joera faxista eta komunistak garaturiko etsaiaren kontzepzio totalak eta antagonistak makilatuko dira, gizateriaren aurkako etsaien aurkakotasun osoa formulatuz.

Aldaketa honen ilustrazio gisara hartu bedi Ginebrako Konbentzioen¹¹⁷ edukiaren garapena. Hasiera batean 1864ean Suitzan sinaturiko akordio hauek militarren eta orokorrean guda ezberdinetan parte hartzen zuten gudari ofizialen eskubide unibertsalak arautzen zituen¹¹⁸. Lehenengo akordioaren ondoren beste hiru gehiago etorriko dira, horietako azkena 1949an adostuko delarik. Kasu honetan Ginebrako Laugarren Konbentzioak¹¹⁹ zibilen eskubideak arautzen ditu, azken hauek gerraren inplikazioak jasaten dituztenaren isla delarik berau; izan ere, jada ordurako Schmitt-ek aipatzen zituen “anikilazio” gerrak emanak ziren.

Honekin guztiarekin, esanguratsua da Nazio Batuen Gutunak gordetzen dituen helburuen egonkortze eta segurtasunerako, NATO sortu izana, Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea¹²⁰. Nazioarteko erakunde honen izaera militarra izango da; nolabaiteko nazioarteko armada militar bat zeinaren Estatu-sinatzaileek hauspotzen dituzten balore demokratikoen defentsa egiteko funtzionatuko duen. Esangura berezia dauka, bai eta paradoxa gradu altua, NATOk Estatuen arteko gatazkak ebazteko bitarteko baketsuak lehenestea. Alegia, nazioarteko gudaroste bat izatearen premisapean, bakebidezko aukerak agortzen saiatuko direla alegatzea, Itunaren Hitzaurreko lehen artikuluak erakutsi

¹¹⁶ Naciones Unidas, Carta de las Naciones Unidas, 24 de octubre de 1945, 1 UNTS XVI, eskuragarri hemen: <https://www.defensa.gob.es/Galerias/defensadocs/carta-ONU-1945.pdf> (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 12a).

¹¹⁷ Convenios de Ginebra de 12 de agosto de 1949, relativos a la protección de las víctimas de los conflictos armados internacionales y sin carácter internacional, hechos en Ginebra el 8 de junio de 1977. «BOE» núm. 177, de 26 de julio de 1989, páginas 23828 a 23863.

¹¹⁸ Naciones Unidas, Carta de las Naciones Unidas, 24 de octubre de 1945, 1 UNTS XVI, eskuragarri hemen: <https://www.defensa.gob.es/Galerias/defensadocs/carta-ONU-1945.pdf> (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 12a).

¹¹⁹ *Ibid.*

¹²⁰ Tratado del Atlántico Norte, Washington DC, 4 de abril de 1949, prólogo, eskuragarri hemen: https://www.nato.int/nato_static_fl2014/assets/pdf/stock_publications/20120822_nato_treaty_en_light_2009.pdf (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 15a).

bezala¹²¹. Schmitt-ek ariketa honen aurrean dio AEBk etsaitasuna eta gerraren gaineko akotazioa baino, polizia mundial baten funtzioa beteko duten organismoak izanen dituela eta hori guztiz logikoa dela euren kontzepzio unibertsalistaren ikuspuntutik¹²².

4. Nazioarteko merkataritza eta nazioarteko zuzenbidearen lotura organikoaz

A) Espazioa lokarri ekonomiko-juridiko bezala

Behin nazioarteko merkataritza eta zuzenbidearen bi kontzepzio horiek errepatatuta, ondorio ezberdinak erauzi daitezke:

Alde batetik, esan beharra dago merkataritzaren eta nazioarteko zuzenbidearen arteko harremana partziala izatetik haratago, osotasuna adierazten duen erlazioa dela. Metonimian erortzetik urrun, batasunaren terminoetan kokatu behar da auzia. Bada, esparru ekonomiko eta esparru juridikoa batzen dituen lokarria espazio sozial orokorraren kontzeptua dela interpretatzen dut. Izan ere, bataren aurrebaldintza den espazioaren ordenamendu errealak ahalbidetzen du bestearen espazioaren ordenamendu juridikoa, biak ala biak espazioaren kategoriaren gainean eraikitzen direlarik.

Honekin adierazi nahi dudana zera da: kapitalaren metaketaren logika edo irizpideari erantzuten diola espazioaren antolaketa sozial orokorrak, merkatuaren eta ekoizpenaren esferen arteko dialektikarekin. Nazioarteko merkataritza, beraz, gizakien bizitzaren esparru naturala den heinean eta berau aberastasunaren metaketa mugagabearen arabera egituratuta dagoen heinean, espazioaren antolaketa eredu zehatz bat eraikitzen da eta horrek, bat egiten du Schmitt-ek adierazten duen nazioarteko zuzenbidearen fundamentuarekin; hots, espazioaren distribuzio espezifikokoaren edo antolaketa zehatzaren irizpidearekin. Schmitt-ek *nomos* bezala definitzen du irizpide hau, edo *izate* bezala. Hauxe da, bere hitzetan, ordenamendu juridiko internazionalaren aurrebaldintza.

¹²¹ Tratado del Atlántico Norte, Washington DC, 4 de abril de 1949, art. 1, eskuragarri hemen: https://www.nato.int/nato_static_fl2014/assets/pdf/stock_publications/20120822_nato_treaty_en_light_2009.pdf (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 15a).

¹²² G. Tripolone, *La doctrina de Carl Schmitt sobre derecho internacional*, Anuario Mexicano de Derecho Internacional, vol. XIV, 2014, pp 6-7.

Beraz, nazioarteko merkataritzaren metaketa irizpideen baitan antolaturiko ordena espazialak nazioarteko zuzenbidearen forma juridikoa garatzen du beraz tipifikatu edo juridikoki arautzen denean eta honek bi esparruen arteko kontzepzio partzial bat izatetik haratago, garatzen ari den errealitate sozial berberaren momentu ezberdinak direla ematen du aditzera: momentu ekonomikoa eta momentu juridikoa. Hargatik, zuzenbidearen autonomiaz hitz egitea azpiegitura ekonomikoa aintzat hartu gabe idealismoan erortzearen sinonimo izango litzateke. Osotasun baten bi momentu dira.

Ikuspegi honen adierazle da esate baterako Giovanni Arrighik daukan optika. Estatubatuar soziologoak dio “metaketa ziklo sistemiko” deitzen dion nazioarteko merkataritzaren hedapen periodoek galdegiten zuten metaketa irizpideen arabera artikulatu dela garaian garaiko nazioarteko zuzenbide publikoa, Genovatik hasita Holandatik igaroz eta Britainia Handitik Ameriketako Estatu Batuetara¹²³. Iparramerikarrak potentzia ekonomiko bakoitzak nazioarteko merkataritza eta zuzenbidean burutu dituen berregituraketak jorratzen ditu bere obran.

B) Langileriaren gerra kontzeptuaren eragina Nazioarteko Zuzenbide Publiko modernoan

Nazioarteko Zuzenbide Publiko modernoak garatu duen gerraren kontzeptuari dagokionean, beraz nazioarteko merkataritza modernoak, kapitalaren metaketan oinarriturik, gordetzen duen klaseen banaketa eta hauen arteko borroka antagonistarekin harremanean aztertzea komenigarria da.

Kapital harremana, lapurreta erlazioa, edo, Marxek adierazi bezala, esplotazio erlazio bat den heinean¹²⁴ -plusbalioaren erauzketa dela medio- etsaitasun absolutuaz gain, etsaitasun osoa garatzeko baldintzak artikulatzen ditu; etsaitasun subjektiboa garatzeko baldintzak, alegia. Izan ere, lan-indarraren ustiapenak jabeen klasearen aberastasunaz gain, klase honen suntsiketa xede duen teoria eta estrategia multzoa ahalbidetzen dituen testuinguru sortzen da.

¹²³ G. Arrighi, *El largo siglo XX*, Madrid, 1999, pp. 107-288.

¹²⁴ K. Marx, *Elementos fundamentales para la crítica de la economía política, (Borrador) 1857-1858*, Madrid, 1971, p. 226.

Ez da kasualitatea, aspektu horretan, Westfaliako Bakearen gerra kontzeptua¹²⁵ eta NBEren gerra kontzeptuaren¹²⁶ aldaketarako trantsizioaren denbora-tarte berdinean, XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran alegia, langileen erakunde komunistek esku-hartu izana eta etsaitasun politikoaren kategoria sistema kapitalistaren suntsipen osorako terminoetan formulatu izana. Westfalian, Estatu-nazioen etsaitasuna *iustus hostis* irizpideak barreiatzen zuen bezala, NBEn etsaitasuna gizateriaren aurkako krimenaren terminoetan kokatzen da, horrek Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren nolakotasuna guztiz aldarazten duelarik.

Beraz, Westfaliaren garaian oraindik existitzen ez ziren etsaitasun eta gerra eredu batzuk aintzakotzat hartzen ez diren heinean –oraindik industria iraultzarik ez delako eman, eta langileria klase modernoa ez delako sortu-, nazioarteko zuzenbideak momentu hartako nazioarteko merkataritzaren egoera garaikideari erantzuten zion. Aldiz, merkataritzaren egituraketa ekonomikoa aldatzen joan ahala eta langile mugimenduak politikoki heltze-prozesu bat pairatu ahala, Nazioarteko Zuzenbide Publikoak horrekiko koherentzian jasango ditu beharrezko aldaketak.

Zentzu honetan, Carl Schmitt-ek Vladimir Ilich Lenin eta Mao Tsetung-en pertsonetan egiten duen enfasia oso esanguratsua da, haiei egozten dielarik etsaitasun antagonistaren garapen teoriko eta praktikoa burutu izanaren erantzukizuna, partisoaren kategoria modernoan enfasi berezia eginez¹²⁷. Izan ere, bien ala bien xedea zen klase etsaiaren premisa teorikotik abiatuta, berau garaitzeko iraultza sozialista internazionala burutzea nazioarteko gerra prozesu baten bitartez.

C) Nazioarteko merkataritzaren eta nazioarteko zuzenbidearen logika amankomunaz

Beste alde batetik, esan beharra dago aberastasuna metatzeko lehia mugagabeen oinarritzen den merkataritza ereduak, azken finean, gerra bera errealitate bezala existitzeko aurrebaldintza dela. Hau da, enpresek haien arteko lehiaren muturreko garapena gerra dela iruditzen zait. Izan ere, enpresek haien arteko lehia, salgaiak saldu edo erosterakoan egiten dute, euren arteko areriotasunari hauspoa ematen diotelarik.

¹²⁵ Osnabrück eta Münster-eko Bake Itunak, 1648ko maiatzaren 15a eta urriaren 24a.

¹²⁶ C. Schmitt, *Teoría del Partisano*, Madrid, 2013, p. 13.

¹²⁷ *Ibíd.*, pp. 67-73.

Bada, ez da kasualitatea enpresen arteko nazioarteko tentsioak lehengaiak, lan-indar merkea, azpiegitura estrategikoak... ahalbidetzen dituzten espazioengatik izatea; baita itsasoa edo airea bezalako espazio estrategikoen eskurapenagatik ere. Hitz batez, merkantzien zirkulazio egokiena posible egiten duten fluxuak zein ekoizpen-baldintza egokienak ahalbidetzen dituzten bitartekoak dira jokoan daudenak, biek ala biek enpresen produktibitatea baldintzatzeko gaitasuna dutelarik. Ez da balizko fenomeno bat ezta ere gerra ekonomikoaz hitz egiten egotea gero eta herrialde gehiagotan eta hain zuzen kontzeptu hau izatea konfrontazio armatuaren aurrekaririk nagusia.

Beraz, ekoizpen bitartekoen zein merkataritza zirkuituen eskasia edo okupazio ia-ia osoaren egoeretan aurkitzerakoan, areriotasunak etsaitasunaren izaerara metamorfosia pairatzea guztiz pausu logikoa da eta horrek, noski, nazioarteko merkataritza zuzenbidean eragina dauka. Are gehiago, batak zein besteak duten logika amankomuna agerian uzten du eta zentzu horretan, ez da ausazkoa Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren nolakotasuna guztiz baldintzaturik aurkitzea; bada, gaitasun ekonomiko-produktibo handienak bai eta ahalmen teknologiko garatuenak dituzten herrialdeek baldintzatzen dute hein handi batean nazioarteko zuzenbidea. Horren erakusle da azken lauzpabost mendeetako historia geopolitikoaren zein, berriro ere Giovanni Arrighirengana itzuliz, gaur-gaurkoz ematen ari den “guda komertziala”¹²⁸ AEBn eta Txinaren artean.

IV. ONDORIOAK

Ondorio orokorretan sartuz, azpimarratu gura dut merkatuaren eta zuzenbidearen arteko lotura honek, krisialdi garai iraunkorrean aurkitzen garen honetan, berebiziko esangura hartzen duela; izan ere, merkataritza eredia bere orokortasunean baldintzatzen ari den iraultza robotikoa edo laugarren iraultza industrialia ari da aurrera eramaten enpresa garatuenen aldetik eta horrek, ikusten ari garen moduan, merkataritzaren zein gure bizitzen ezaugarriak goitik behera aldatu ditu edo prozesu horretan dago bederen.

Horrela, iraultza tekniko-zientifiko honen aitzindarritza eta hegemonia Txina bezalako potentzia ekonomikoaren eta AEBn artean lehiatzea sintomatikoa dela esan daiteke; izan ere, gainerako garai historikoei erreparatuta beti existitu da metaketa zikloa agortu

¹²⁸ P.Baños, *El dominio mundial. Elementos del poder y claves geopolíticas*, Barcelona, 2018, pp. 51-89

ondoren krisi ekonomiko, politiko eta juridiko bat, non garaiko potentzia ekonomikoaren hegemonia zalantzan jartzen duen bestelako indar geopolitiko batek esku-hartu duen, kasuan kasu. Zenbait analista geopolitikok aurreikusten dutenez, jada Txinaren BPGa 2030. urterako mundu mailako handiena izango omen da, bereziki aipaturiko iraultza teknologikoa dela medio lortuko dituen aurrerakuntza ekonomiko-produktiboak direla eta. Bada, krisialdi egoera honek NBEarekin inauguraturiko zuzenbide sistemaren krisialdia zein puntutaraino inplikatzen duen aztertzeke dago. Izan ere, badirudi jada Bigarren Mundu Gerraren ondoren erroturiko nazioarteko merkataritza sistema eta zuzenbide sistemak bere mugak jo dituela eta metaketarako lehiak horri erantzuten dio. Nola interpretatu bestela egunetik egunera ematen ari diren garapen teknologikoak? Nola ulertu inteligentzia artifizialaren sozializazio progresiboa geure bizitzetan gailu mota ezberdinen bitartez? Honako hauek ezin dira ulertu interes geopolitikoetatik berezita.

Ildo berean, ezin da aipatu gabe utzi ezta ere Merkataritza Askeko Akordioen ugaritzea azken hiru hamarkadetan. Akordio hauek gainditu egiten dute MMEren eta GATTen funtsezko printzipioa: nazio mesedetuena alegia. Izan ere, hitzarmen aldebikoak lehenesten dituzte marko legal aldeaniztunaren gainetik. Hori dela eta, akordioa burutzen dutenen artean aurrerapauso ekonomikoak eman nahi izatearen zantzuak interpreta daitezke MMEren funtzionamendu irizpideetatik haratago eta horrek, berriro ere, AEBen hegemonia ziurtatzeko antolaturiko zuzenbide eta merkataritza sistemaren mugak adierazten dizkigu.

Gainera, komeni da Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren nolakotasuna baldintzatzen duen armagintza nuklearra ere begiztatzea, honek gerraren eta etsaitasunaren kontzeptuak hurrenez hurren determinatzen baititu. Azken finean, maila internazionalan egun ematen ari diren tentsioek gerraren izaera garatuko balute, espazioa bera desegiteko arriskua existituko litzatekeela ezin da ukatu, eta gerra lokalizatuak existitzen badira ere, badirudi Nazioarteko Zuzenbidea errespetatzen ez duten talkak ematen ari direla, non AEBn hegemonia baldintzatzen duten tentsioek hartzen duten lekua, Ukraina ipar-ekialdeko Donbass edota Novorosiya moduko lurraldeetan bezala. Lan hau amaitzen ari naizen egunotan, esaterako, politikoki eta militarki Iraneko pertsonaia esanguratsuenetariko baten exekuzioa AEBn partetik nazioarteko potentzia nuklearren tentsioaren adierazle gordinena besterik ez da. Beraz, aztertzen joan beharko da gatazka hauen garapenak zein intentsitate-gradu hartzen dituen.

Azken finean, lan honetan azpimarratu nahi dudana da: nazioarteko merkataritzaren logikak nazioarteko zuzenbidearekin duen loturak aipatzen diren independenteak diruditen bi esparruen batasun erreala ebidentzian jartzen duela eta prisma horretatik begiratuta, zuzenbidea bera zientzia juridiko eta egitura politiko-administratibo moduan ezin dela zentzu unilateralean kontzebitu. Bada, ezin sinets daitekeela legearen, ohituraren eta zuzenbidearen printzipioen autonomia absolutuan eta etenik gabe ekonomiarekiko harremanean soilik uler daitekeela beronen izateko arrazoia eta nolakotasuna. Ezin dira ulertu MME, NDF, MB, MAA, NBE, etab., bezalako zuzenbide-egiturak eta hitzarmen juridikoak ekonomiarekiko harremanean ez bada. Ezin da ulertu horietako bakoitzaren barnean aurkitzen den lanaren banaketa sistematizatua beronek zein helbururi erantzuten dion aintzatetsi gabe. Egitura internazional hauek ez dira ezerezaren produktu eta euren barne-funtzionamenduak Bigarren Mundu Gerraren ostean irekitako aro ekonomikoari erantzuten diotenaren susmoa daukat. Gaur-gaurkoz ordea, ziklo ekonomiko hori krisian sartu dela medio, ikusteke dago zein aldaketa jasango dituzten instituzio juridiko eta akordio hauek. Oro har, ekonomia eta zuzenbidearen artean existitzen den erlazioak agerian uzten du, mugitzen garen koiunturaren izaera konplexu eta polifazetikoa, bera ezin baita bat-batekotasunaren betaurrekoekin aztertu eta zientzia juridiko eta ekonomikoaren urgentzia azaleratzen baititu.

V. BIBLIOGRAFIA

DOKTRINA ETA BESTELAKO ERREFERENTZIAK

- Arrighi, G.: El largo siglo XX, Madrid, 1999.
- Baños, P.: El dominio mundial. Elementos del poder y claves geopolíticas, Barcelona, 2018.
- Barrera Graf, J.: Derecho Mercantil Inernacional (D.M.I.), eskuragarri hemen: <https://archivos.juridicas.unam.mx/www/bjv/libros/5/2105/3.pdf> (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 4a).
- Borges, L.: Fordismo y taylorismo: similaridades y diferencias, 12 de noviembre de 2018, eskuragarri hemen: <https://blog.luz.vc/es/que-es/fordismo-y-taylorismo-similitudes-y-diferencias/> (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 8a).
- Braudel, F.: El Mediterráneo y el Mundo Mediterráneo en la época de Felipe II, Madrid, 1976.
- Comunidad Forex de España y América Latina: Fondo Monetario Internacional (FMI), eskuragarri hemen: <https://efxto.com/diccionario/fondo-monetario-internacional-fmi> (kontsulta eguna: 2019ko azaroaren 30a).
- Colectivo Aufheben, ¿Teoría de la decadencia o decadencia de la teoría?, Rebelión, eskuragarri hemen: <http://www.rebellion.org/hemeroteca/izquierda/cortes110602.htm> (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 7a).
- Díez de Velasco, M.: Las Organizaciones Internacionales, Madrid, 2008.
- Dussel Ambrosini, E.: Política de la liberación vol. II Arquitectónica, Madrid, 2009.
- Fernández Rozas, J.C.: Sistema de Derecho Económico Internacional, Pamplona, 2010.
- Fontana, J.: Por el bien del Imperio, una historia del mundo desde 1945, Barcelona, 2018.
- Gross, L.: Derecho Internacional y Organización, Filadelfia, 1968
- Iliénkov, E.: Dialéctica de lo abstracto y lo concreto en “El Capital” de Marx, Quito-Ecuador, 2017.
- Marx, K. y Engels, E.: El Manifiesto Comunista, Barcelona, 2017.
- Marx, K. El Capital: Crítica de la economía política, México, 2014.

- Marx, K. El Capital libro VI Capítulo VI (inédito), resultados del proceso inmediato de producción, México, 2009.
- Marx, K. Contribución a la Crítica de la Economía Política, México, 1989.
- Marx, K. Trabajo asalariado y capital, Moscú, 1977.
- Marx, K. Elementos fundamentales para la crítica de la economía política, (Borrador) 1857-1858, Madrid, 1971.
- Organización Mundial del Comercio: Acuerdo General sobre el Comercio de Servicios, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/docs_s/legal_s/26-gats_01_s.htm#articleV (kontsulta eguna 2019ko azaroaren 28a).
- Organización Mundial del Comercio: Diez cosas que puede hacer la OMC, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/thewto_s/whatis_s/10thi_s/10thi00_s.htm (kontsulta eguna: 2019ko azaroaren 28a).
- Organización Mundial del Comercio: Las normas de la OMC, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/tratop_s/region_s/regrul_s.htm (kontsulta eguna 2019ko azaroaren 28a).
- Organización Mundial del Comercio: Las normas básicas sobre mercancías, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/tratop_s/region_s/regatt_s.htm (kontsulta eguna 2019ko azaroaren 28a).
- Organización Mundial del Comercio: Lo que propugnamos, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/thewto_s/whatis_s/what_stand_for_s.htm (kontsulta eguna 2019ko azaroaren 28a).
- Organización Mundial del Comercio: Organización Mundial del Comercio, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/thewto_s/whatis_s/tif_s/fact4_s.htm (kontsulta eguna: 2019ko azaroaren 25a).
- Organización Mundial del Comercio: Textos jurídicos anteriores al establecimiento de la OMC, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/docs_s/legal_s/prewto_legal_s.htm (kontsulta eguna: 2019ko azaroaren 26a).
- Organización Mundial del Comercio: Trato Diferenciado y Más Favorable, Reciprocidad y Mayor Participación de los Países en Desarrollo, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/docs_s/legal_s/enabling1979_s.htm (kontsulta eguna 2019ko azaroaren 28a).

- OXFAN International, Nuestro futuro por la borda. Cómo socavan el desarrollo los tratados de comercio e inversiones entre países ricos y pobres, marzo de 2007, eskuragarri hemen: <https://www.laondadigital.uy/LaOnda2/301-400/372/B3.pdf> (kontsulta eguna abenduaren 2a).
- Polanyi, K.: La gran transformación, Madrid, 1989.
- Rubin, I.: Historia del pensamiento económico, Madrid, 2011.
- Ruiz Sanjuán, C.: Libertad, igualdad y propiedad en la sociedad capitalista, Daimón, Revista Internacional de Filosofía, núm.58, 2013.
- Schmitt, C.: Teoría del Partisano, Madrid, 2013.
- Schmitt, C.: El Nomos de la tierra en el Derecho de Gentes del Ius publicum europaeum, Granada, 2003.
- Schmitt, C.: El concepto de lo político, Madrid, 1991.
- Schmitt, C.: El concepto de imperio en el derecho internacional, Revista de Estudios Políticos, Madrid, núm. 1, 1941.
- Tripolone, G.: La doctrina de Carl Schmitt sobre derecho internacional, Anuario Mexicano de Derecho Internacional, vol. XIV, 2014.
- Tronti, M.: Obreros y capital, Madrid, 2001.
- Varoufakis, Y.: El Minotauro Global. Estados Unidos, Europa y el futuro de la economía mundial, Madrid, 2013.

LEGISLAZIOA ETA BESTE DOKUMENTU OFIZIAL BATZUK

- Cobden-Chevalier Merkataritza Ituna, 1860ko urtarrilaren 23koa.
- Convenios de Ginebra de 12 de agosto de 1949, relativos a la protección de las víctimas de los conflictos armados internacionales y sin carácter internacional, hechos en Ginebra el 8 de junio de 1977. «BOE» núm. 177, de 26 de julio de 1989, páginas 23828 a 23863.
- Naciones Unidas, “Acta Final y documentos conexos, E/Conf.278”, Conferencia de las Naciones Unidas sobre Comercio y empleo. La Habana, Cuba, Naciones Unidas, celebrada del 2 de noviembre de 1947 al 24 de marzo de 1948, eskuragarri hemen: https://www.wto.org/spanish/docs_s/legal_s/havana_s.pdf (kontsulta eguna: 2019ko azaroaren 25a).
- Naciones Unidas, Resoluciones aprobadas sobre la base de los informes de la Sexta Comisión, Documentos Oficiales de la Asamblea General, A/RES/2205, adoptadas el 17 de diciembre de 196, eskuragarri hemen:

[https://undocs.org/es/A/RES/2205\(XXI\)](https://undocs.org/es/A/RES/2205(XXI)) (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 7a).

- Naciones Unidas, Ley Modelo de la CNUDMI sobre Transferencias Internacionales de Crédito (1992) eskuragarri hemen: https://uncitral.un.org/es/texts/payments/modellaw/credit_transfers (kontsulta eguna 2019ko abenduaren 7a).
- Naciones Unidas, Comisión de las Naciones Unidas para el Derecho Mercantil Internacional, eskuragarri hemen: <https://uncitral.un.org/es/about> (kontsulta eguna 2019ko abenduaren 7a).
- Naciones Unidas, Carta de las Naciones Unidas, 24 de octubre de 1945, 1 UNTS XVI, eskuragarri hemen: <https://www.defensa.gob.es/Galerias/defensadocs/carta-ONU-1945.pdf> (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 12a).
- Osnabrück eta Münster-eko Bake Itunak, 1648ko maiatzaren 15a eta urriaren 24a.
- Pacto de la Sociedad de las Naciones, de 28 de junio de 1919.
- Tratado del Atlántico Norte, Washington DC, 4 de abril de 1949, eskuragarri hemen: https://www.nato.int/nato_static_fl2014/assets/pdf/stock_publications/20120822_nato_treaty_en_light_2009.pdf (kontsulta eguna: 2019ko abenduaren 15a).